



## Euskal Herriaren diasporizazioa

Urkullu Lehendakari agurgarri hori, Arabako eta Bizkaiko Batzar Nagusietako Presidenteak, Foru Aldundien, Eusko Legebiltzarraren, Unibertsitateen eta euskal kulturaren munduko ordezkariak, lau kontinenteetako hogeit hamar herrialde baino gehiagotatik etorritako Euskal Etxeen ordezkariak, jaun-andreok, ongi etorri.

Berriz ere neuregan ditut Euskal Gizataldeen Mundu Batzarrean hitz batzuk esateko pribilegioa, ohorea eta ardura. Argi dago lehen bost batzarretan diasporaren euskal herritartzea izan zela aintzat hartu zen ikuspegia, hau da, euskal kulturari eta euskarari eustea hemendik kanpo, Ama Lurretik kanpo. Diasporan jaiotako belaunaldiak euskal nortasun komunera nola erakarri, horixe izan da betiere erronkarik handiena, diasporaren adierazpenetako batekiko haien leialtasuna lortzeaz gainera.

Aurreko batzarretan egindako ahaleginek indarrean dira, eta aurrean izan behar ditugu beti, azken garaipenak jasotzen dituen eszenatokirik ez baitago. Gertakizun puntual bat baino askoz ere gehiago da munduan euskal kulturari eustea, etenik gabeko prozesua da, eta inolako zalantzarik ez dut, euskal nortasunaren jarraipena izango dela, neurri handiagoan ala txikiagoan, hau bezalako etorkizuneko batzarren gai nagusia.

Gizataldeen Batzarraren seigarren edizio honetarako, alderantzizko ikuspegitik begiratzera animatu naute, hau da, jatorrizko Lurraren diasporizazioa aintzat hartzera. Hasteko, Euskal Herriaren diasporizazio iturri ugari daude –ez bat bakarrik-, eta horien eragina ere desberdina da testuinguru arabera. Ez da gauza bera Bizkaiko kostaldeaz, Gernikaldeaz, eta Baztan Haranaz hitz egitea –mendeetan zehar euskal emigrazio handia izan duten eremuak horiek-, edo Portugalete, Irun, Iruñea edo Tuteraz hitz egitea. Iparraldean eta Hegoaldean ere ez da berdina izan eragina, historia kolonizatzaile eta inperialak desberdinak izan baitira egokituta dauden bi estatuetan (Espainia eta Frantzia). Jokoan dauden aldagai guztiak ezin dira, ordea, hitzaldi bakar batean bildu, eta horrenbestez, Euskal Autonomi Erkidegoaren egoera izango dut mintzagai nagusi. Eta erkidego horretan ere, ez naiz sartuko landako eta hiriko Euskadiren artean, edo Nerbioi ibaiaren ezkerrearen eta Arabako Errioxaren artean, diasporizazioan dauden aldeen labirintoan.

Azken aldi honetan, garraibideetan nahiz komunikabideetan izan diren aurrerapenak izugarriko iraultza eragin dute Ama Lurraren eta haren lehengo diasporaren arteko harremanen ikuspegitik begiratu. Orain dela mende bat, etxearekiko eta jaioterriarekiko harremana ia erabat haustea zen emigratzea. Hartu-emanak, noizean behin, jakina, gutunen bidez izaten ziren eta gutunek hilabeteak behar izaten zituzten iristeko; eta urte asko, hamarkadak ez esateagatik, kanpoan eman ondoren egiten zen etxera bisita edo itzultzen ziren betirako –horrelakorik gertatzen bazen-. Itzultzen zenak galduak izaten zituzten gizartearen bilakaeraren nozioa eta jatorriko kultura. Guztiz anakronikoak ziren diasporatan zituzten Euskal Herriaren ikuspegiak, eta esan dezagun adibide gisa, Ama Lurrean erabiltzen ez ziren hizkuntza moldeak ere kontserbatu zituzten, eta jakina, ez zuten neologismoak sartzeko aukerarik izan. Izan ere, etxera itzultzen zen emigranteak (eta haren ondorengoak zer esanik ez) guztiz arrotzak ziren emigratu ez zuten garaikideentzat.

Haien hizkera ere, euskara nahiz gaztelania, guztiz bitxia egiten zitzaien. Bestalde, esan beharrik ez dago garai hartan diaspora ez zegoela batere aintzat hartua euskal mentalitatearen eta bizitza publikoaren barnean.

Gaur egun aldiz, interesik txikiena baldin badu bederen, emigranteak egunero izan dezake jatorriko Lurraren berri Interneten bidez; astean behin dei egin diezaieke etxekoei, eta bisitan etorri ere egin daiteke urtean behin. Are gehiago, Europako herrialdeetakoren batean finkaturiko euskal diaspora berrietako batean badago, askoz ere gehiagotan etor daiteke etxera, "asteburuko" bisitak ere egin ditzake. Era berean, hemengoek ere beste horrenbeste egin dezakete atzerrian bizi diren familiakoei, ahaideei eta lagunei begira. Haiekin harremanetan egon daitezke Interneten bidez edo hegazkina har dezakete... Horrenbestez, esan dezakegu guztiz aldatu direla euskal diaspora –hala tradizionalak nola modernoak- eta jatorriko Lurraren arteko harremanak. Fenomeno horren ondorioetako bat horixe da, hain zuzen ere, Euskal Herriko gizartearen diasporizazioa.

Bada Herrialde honen beste diasporizazio iturri garaikide bat ere, berez euskal diaspora ukitzen ez duena, beste migrazio historiko mota bat baizik. Iberiar penintsulako beste leku batzuetatik Euskadira iritsi ziren immigrantez ari naiz, euskal ekonomiaren industrializazioak erakarrita etorri zirenak. Jakin badakigu hemeretzigarren mendearen bigarren erdialdean hasi zela prozesu hori eta jarraitu egin du belaunaldiz belaunaldi, gaur egunera arte. Gizatalde horiek beren diaspora komunitateak sortu dituzte –komunitate gaztelarra, asturiarra, andaluziarra eta beste-, eta beren kultur elkarteak dituzte. Euskal emigranteek eta haien ondorengoek beren herrialde hartzaileetan sortu zituzten euskal kultur elkarten eta euskal etxeen antzekoak dira oso. Hemen bizi diren gizatalde iberiarrek, eta haien elkarteek, Euskal Ama Lurraren beste diasporizazio bat osatzen dute, inolaz ere.

Komunitate iberiar horiek Euskal Herrira egindako immigrazio tradizionala edo historikoa osatzen duten bitartean, badira aintzat hartu behar ditugun beste migrazio mugimendu batzuk ere. Egungo Europan gertatu diren aldaketetatik etorritako immigrazio uholde berrien ondorio dira horiek. Europar Batasuneko herrialdeen arteko langileen zirkulazio librearen politikaren ondorio dira neurri batean, Erdialdeko Ekialdeko gerretako errefuxiatuen eguneroko migrazio handiaren edo Afrikako Saharaz hegoaldeko eta herrialde latino-amerikar batzuetako pobrezia-ondorioz etortzen direnak ere badiren arren. Bilboko, Donostiako, Iruñeko, Baionako edo Gasteizko kaleetan barrena paseo txiki bat egin besterik ez dugu jende beltz ugari ikusteko. Etxalarren, hantxe bizi izan bainintzen joan den mendeko hirurogeigarren urteetan, guardia zibilak eta mugako ofizial espainiarrak ziren kanpoko eragin demografiko bakarrak, eta uso ehiztariak udazkenean; haiek guztiak, guardia zibilak, ofizialak eta ehiztariak, uso-bandak berak bezain paseko taldeak ziren, inolaz ere. Hara bada!, gaur egun lau familia errumaniar bizi dira Etxalarren galtzerdi termikoak egiten lanean Lorpen enpresan. Gainera, badituzte sasoiko langileak ere, Errumaniatik etortzen direnak enpresa horretan lan egitera urtean sei hilabetez. Horrek esan nahi du osatzen ari den kolonia errumaniar baten oinarria dugula zortziehun biztanle baino gutxi gehiago dituen herri nafar batean.

Diaspora berri horiek ez daramate beren kultur elkarteak osatzeko behar adina denbora Euskal Herrian, baina seguru asko, biharko egunean, sendo finkatzen direnean, osatuko dituzte beren elkarteak: “ekuatortarrak”, “marokotarrak”, “kubatarrak”, “kolonbiarrak” edo “errumaniarrak”. Euskal Herriko diasporizazioaren beste modu bat dira gizatalde horiek, eztabaida publikoa etengabea baita, eta intereseko iturri baitira Euskal Herrian duten egoerari eta etorkizunari buruzko berriak.

Globalizazioa da beste faktore bat Ama Lurraren diasporizazioan, nola Espainiako eta Frantziako estatuetan hala beste europar herrialdeetan euskal diaspora “berriak” sortzen ari baita. Ingalaterra, Italia, Belgika, Holanda, Danimarka eta beste herrialde batzuei buruz ari naiz. Halaber, hain gertu ez dauzkagun beste herrialde batzuk ditud gogoan, esate baterako, susperraldi ekonomikoa bizi duten Dubai, Hegoafrika eta Txina bezalakoak.

Bestalde, oraindik badago betiko herrialde hartzaileetarantz jotzen duen “euskal emigrante berria”. Euskal Herriko Buenos Airesera, Txileko Santiagora, Mexiko Hirira eta New Yorkera multinazional batean paseko hegaztia balitz bezala lanera doanaz ari naiz. Etorkizun iraunkor bat garatzeko norakoa baino behin-behineko geldialdia da, iraupen txikikoa gainera herrialde jakin bateko nortasun agiria edukitzea baino pasaporte izatea garrantzitsuagoa den gaur-gaurko mundu honetan. Gertaera horiek behin eta berriz dira eztabaidagai euskal hedabideetan, eta ondorioz, bertako herritarrak gero eta jakitunago dira mundua egunetik egunera txikiagoa eta trinkoagoa dela.

Aintzat hartu nahi dut euskal erakundeen eta beren diasporaren arteko gaur egungo harremanaren eragina. Urteak dira Eusko Jaurlaritzak aurrekontu apal bat bereizten duela munduan barrena dauden euskal diasporari laguntzeko. Halako premiak dituzten banakakoei gizarte laguntzak emateko programak dira, diasporako gazteek Euskal Herrian egiten dituzten egonaldiak ordaintzeko funtsak, kanpoko euskal etxeetan euskara sustatzeko programak eta munduko Euskal Etxeen eta euskal kultur elkarten beste beharrezko batzuk diruz laguntzeko programak. Txanponaren ifrentzuan dugu Eusko Jaurlaritzak diasporarako funtsezko pertsonekin dauzkan harremanei ematen zaien erabilera, herrialde hartzaileetako erakundeekin eta enprekin harremanak eduki ahal izatea ahalbidetzen baita horien bitartez, eta horrenbestez, Euskal Herriko produktuen esportazioa eta inbertsioak atzerrian sustatzea, atzerriko inbertsioak Euskadin bezala.

Jarduera horiek guztiek agerian uzten dute euskal erakundeek garrantzi handia ematen dietela beren diasporari, eta ezagutze hori kanpoko munduaren ezagutzaren sinonimo da hemen eta orain. Hein batean Herri honetako funts publikoen banaketari buruzko eztabaida irekiaren eta demokratikoaren ondorio da hori, baina halako feedback edo diasporak Ama Lurra berrelikatzeko urrats antzeko bat islatzen du. Orain dela hogeita hamar edo berrogei urte Euskadin kasu gutxi egiten zitzaion, edo bat ere ez, euskal diasporari. Orduz geroztik bizitako aldaketak gizarte honen beste diasporizazio bat islatzen du.



Boise State University Unibertsitateak hirurogeigarren urteetan Oñatin eta USAC-ek laurogeigarren urteetan Leioan eta Donostian antolatutako programa unibertsitarioak dira diasporizazioaren bi adibide esanguratsu. Iñaki Galdosek asteazken arratsaldean azaldu zigun Boise-Oñati trukeak berekin batean ekarri zuena. USAC-ri dagokionez, bederatzi milatik gora ikasle (horien artean hainbat mila euskal-amerikarrak zirela) bidali ditu Euskadira bere hogeita hamar urteko ibilaldian. USAC-ek zubiarena egiten du Euskal Herriaren eta Estatu Batuen artean, eta urtero nola irakasleak hala ikasleak trukatzeko aukera ematen du. Hemengoak direnak gizarte honen diasporizazioko banakako iturri bihurtuta itzultzen dira kanpoan berenganatutako eskarmentuari esker.

Hemen bilduta zaudetenetatik ez gutxi Boisen izan zineten aurtengo uztail amaieran eta abuztu hasieran hiri hartan bost urtean behin egiten den Jaialdian. Jaioberri guztiak bezala, ekitaldi xume eta bakar gisa abiarazi zen, etorkizunean segidarik izango ote zuen jakin gabe. Zazpigarrena izan du aurtengo Jaialdiak. Aurrenekoa 1987an egin zen, Euskal Gizataldeen Mundu Batzar hau sortu zen garai bertsuan (1995ean). Ekimen biek zuten euskal kultura babesteko eta sustatzeko helburu nagusia. Eta denboraren joanean Euskal Herriaren beraren luzapen instituzional bihurtu da Jaialdi hori. Batzar hau bezalaxe, dagoeneko berez da, baita definizioz ere, nazioarteko ekitaldia, eta euskal diaspora askotatik milaka eta milaka lagun gerturatzen dira egun. Baina albiste deigarriena da Euskal Herriatik Boiseko jaialdian izateko ateratako pertsona kopuruaren hazkundera. Iragan uztailean familien arteko hamaika bilera egin ziren Boisen, horien artean zegoen neurea. Ni hainbat urtez bizi izan nintzen hirurogeigarren urteetan Aulestiko Goitiandia baserrian, eta 85 urte dituen arreba Matilde izan nuen Jaialdian. Egunduko hartan Boiseko jatetxe batean bildu ginen, elkarrekin afaltzen hiru "Goitiandia" belaunaldi eseri ginen mahaiaren inguruan... Kalkulu batzuen arabera, Euskal Herriatik joandako bost milatik gora lagun izan ziren iragan udan Boisen. 1959. urtean Sparksen, Nevadan, izandako Lehenengo Jaialdi Nazionala euskal herritarrek Ipar Amerikan egin zuten elkarretaratze handiena izan zen azken jaialdi hau ospatu den arte. Orduko hartan gutxi gorabehera hiru mila lagun bildu ziren (Boiseko Jaialdian hogeita hamar mila lagun izan ziren), eta gehien-gehienak Amerikako mendebaldekoak ziren. Europatik Sparkseko ekitaldi hartara etorritako euskal herritarrak segur asko ez ziren ez eta ehun lagun ere izango.

Jaialdiaren inguruan antolatutako ekitaldiek ere asko esaten dute diasporak Euskal Herrian eragindako interesaren inguruan. Urkullu Lehendakaria bertan izan zen Hezkuntza eta Kultura Sailburuak eta bere taldeko hainbat kidek lagunduta. Urkullu bera izan zen ongi etorria emateko eta Jaialdiko antolatzaileak zoriontzeko jendaurreko ekitaldi bateko protagonista nagusia. Boisen ere lehenengo aldiz eman zuen jendaurrean Batzar honen gaiaren berri, Euskal Herriaren diasporizazioa. Haren hitzek egin zioten sarrera egitarau ofizialari.

Bestalde, Ibarretxe lehendakari ohiak berak idatzitako Euskal Herriaren etorkizunari buruzko liburuen ingelesezko bertsioa aurkeztu zuen. Bizkaiko Ahalduen Nagusiak, bi diputatu lagun zituela, bere agenda bete zuen. Euzko Alderdi Jeltzaleko buru Andoni Ortuzarrek hitzaldi bat eskaini zion jarraitzaile kopuru handi bati EAJren eta Euskadiren etorkizunari buruz...

Ekitaldi horiek guztiak Boisen antolatu ziren, eta euskal politikagintzako protagonista handienetako batzuek parte hartu zuten haietan. Hiriko alkate Dave Bieter jaunak ere parte hartu zuen. Hogeigarren mende hasieran Bizkaitik Idahora emigratutako gurasoen alaba euskal-amerikar baten semea da Dave Bieter, eta bere garaian denboraldi luzea eman zuen Euskadin; egun euskal hiztuna da. Antolatutako ekitaldietan izan genuen hutsik egin gabe. Politikari guztien hitzaldietan Euskal Herriak bere etorkizun politikoa Espainiar estatuan edo estatu horretatik kanpora erabakitzeko duen eskubide osoa izan zen gai nagusia. Hori guzti hori Boisen gertatu izanak agerian uzten du, alde batetik, Euskadik garrantzi handia ematen diola bere diasporari, eta bestetik, Euskal Herriaren diasporizazioaren beste aurpegia dela.

Eraikin honetatik atera behar izan gabe, gure Ama Lurraren diasporizazioaren erakusgarri batekin amaitu nahiko nuke. Euskal Gizataldeen Mundu Batzar hau, Euskadin lau urtean behin egiten dena, Euskal Herriak bere diasporari ematen dien garrantziaren jendaurreko aitorpena da. Munduko kontinente populatu guztietara eta irla askotara –esate baterako, niri dagokidanez, Irlandako Ama Lurrera– emigratzen bost mendetik gora eman eta gero, une honetan gehiago dira Euskal Herritik kanpora bizi diren "euskal herritarrak" Euskal Herrian bizi direnak baino. Ez zait Euskal Herriaren diasporizazio maila azaltzeko beste adibide hoberik bururatzen.

Eskerrik asko zuen arreta eskaintzeagatik. Mila esker.

**William A. Douglass**

Nevadako Unibertsitateko Euskal Ikasketen Zentroko irakasle emeritua